



Badatoz 2024ko Inauteriak!

- **Aurten otsailaren 8tik 11ra ospatuko da Andoainen mozorroen festa**
- **Datorren urtarrilaren 15ean bilkura egingo da egitaraua borobiltzeko**

Andoainen, 24-01-10.- Hilabete besterik ez da falta urte honetako mozorroak armairurik atera eta Inauterien ospakizunei ekiteko. Otsailaren 8arekin, ostegun gizen egunarekin batera lehertuko da festa, eta igandera bitarte luzatuko da, otsailaren 11ra arte.

Hala, festaren egitaraua prestatzeko bigarren bilkura egingo da hurrengo urtarrilaren 15ean, astelehenean, 19:00ean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Orain arte aurkeztu diren proposamenak aztertu eta jaien egitaraua zehaztuko da bertan.

Udalak bertara gonbidatu nahi ditu Inauterien festaz gizatu nahi duten herritar guztiak; halaber, deia luzatzen die herritar guztiei, irudimena erabiliz baina errespetuz, mozorroak pentsatu eta jaiaz goza dezaten. Egun horietan etxeko balkoi eta leihoak kolorez janztera ere gonbidatzen dituzte.